



EUSKAL INDUSTRIA AERONAUTIKOA: AITZINDARIETATIK NAZIOARTEKO LIDERGORA

Santiago Azcarraga Alonso*

Euskal Herriak aeronautikarekin duen lotura uste baino askoz zaharragoa da. 1910ean egin ziren Donostian Espainiako historiako lehen hegaldietako batzuk. Garai hartan nabarmendu ziren Benito Loygorri, Espainiako lehen pilotu tituluduna, eta Heraclio Alfaro, Gasteizko ingeniaria. Hark 1914an Espainian diseinatu eta eraikitako lehen hegazkin guztiz operatiboa sortu zuen. Geroago, Estatu Batuetan ibilbide bikaina egin zuen, eta gaur egun munduko abiazioaren aitzindarietako bat dela aitortzen da.

Euskal Herriak aire-garraioaren hastapenetan ere protagonismo handia izan zuen. 1920an sortutako Compañía Franco-Bilbaína de Transportes Aéreos konpainiak Baiona, Bilbo eta Santander hidrohegazkinen bidez lotu zituen. Handik urte batzuetara, 1948an Bilbon sortutako AVIACO Espainiako aire-konpainia garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Hala ere, 1960ko hamarkadaren erdialdera euskal industria aeronautikoa ia ez zen existitzen.

Benetako inflexio-puntua SENER enpresarekin iritsi zen. Enrique Sendagortak 1956an sortutako enpresak 1960ko hamarkadan ekin zion jarduera aeroespazialari, eta nazioarteko ospea lortu zuen Suediako Kirunako suziriak jaurtitzeko dorrea bezalako proiektuei esker. Bultzada horri eta Álvaro Azcárraga ingeniariaren ekarpenari esker, SENER Europako programa aeroespazial eta

aeronautiko nagusietan parte hartzen hasi zen, Euskadi punta-puntako teknologiararen mapan kokatuz.

Mugarri nagusietako bat ITPren sorrera izan zen 1989an. Eurofighter hegazkinaren EJ200 motorraren garapenean parte hartzeko sortu zen konpainia, eta berrikuntzaren aldeko

«Euskal industria aeronautikoaren bilakaerak erakusten du berrikuntzak, lankidetzak eta ezagutzaren aldeko apustuak mundu mailako erreferente bihurtzeko gaitzaketa.»

apustuari eta Rolls-Roycerekin izandako lankidetzari esker, munduko erreferente bihurtu zen turbina aeronautikoen diseinuan eta fabrikazioan. Horrek balio-kate globalean kokatu zuen Euskadi. Beste une erabakigarri bat 1993an iritsi zen, Gamesa Aeronáutica enpresak, gaur egungo Aernnovak, Embraer brasildarrarekin EMB-145 eskualdeko erreaktorea garatzeko sinatutako kontratuarekin. Arrisku partekatuko ereduan oinarritutako lehen programa aeronautikoetako bat izan zen. Proiektuaren arrakastak euskal enpresen gaitasun teknologikoa erakutsi zuen eta konpainiaren nazioarteko hedapenari bidea ireki zion. Prozesu horretan funtsezko eginkizuna izan zuen Iñaki López-Gandaseguik, zeinaren gidaritzapean Aernnova munduko fabrikatzaile aeronautiko nagusietako bat bihurtu baitzen.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzak enpresen, zentro teknologikoen eta

administrazioen arteko lankidetzak bultzatu zuen, eta horren ondorioz sortu ziren HEGAN klusterra eta Aeronautikako Zentro Teknologikoa (CTA). Elkarlan horrek ikerketa, berrikuntza, saiakuntzak, ziurtapena eta prestakuntza espezializatua indartu zituen, sektorearen hazkundera sustatuz. Emaiza aparta

izan da. Hamarkada gutxiren buruan, fakturazioa eta enplegua hainbat aldiz biderkatu dira, eta Euskadi Espainiako eta Europako polo aeroespazial nagusietako bat bihurtu da. Aernnova eta ITP Aero bezalako enpresek nazioarteko programa aeronautiko garrantzitsuenetan parte hartzen dute gaur egun, eta mundu mailako erreferente dira.

Euskal industria aeronautikoaren bilakaerak erakusten du duela mende erdi ia existitzen ez zen jarduera bat mundu mailako erreferente bihurtzeko daitekeela, berrikuntzaren, lankidetzaren eta ezagutzaren aldeko apustu sendoari esker.

*Santiago Azcarraga ingeniari aeronautikoa da